

# UDAL Euskaltegia

● / 2013-XII-05 osteguna /



## Zikoenean Sta. Maria Magdalena izeneko ospitala zegoen, XVI. mendean

Hernanin, Erdi Arotik hona hainbat ospitale eta egoitza izan dira eta horien berri izango duzue datozen lerroetan.

// IV

## Gustura euskaltegian, giro ederrean

Euskaltegian ditugun bizipen eta lanak kontatzen ditugu segidan. Bi errezeta goxo ere, hor dituzue.

// II

## «Egunero joaten gara Euskaltegira, pozik, ikastera, aurrez aurre hitz egitera...»

Euskaraz hitz egiteko, komunikatzeko hainbat modu edo aukera bildu ditugu, jarraian.

// III

*Azoka Txikia*

«Proposamen bat dut denontzat: azoka txikia prestatzea euskaraz bizitzeko»



*3 mariak liburuaren laburpena*

«Normalean jendeak zahartzaroari buruz hitz egiten duenean berea orokortzen du»

// II



# EUSKALTEGIEN TXOKOA

## UDAL EUSKALTEGIA

14

Euskaltegien Txokoa kaleratzen da Hernaniko AEK eta Udal Euskaltegiek, Hernaniko Udalak eta Hernaniko Kronikak daukaten elkarlanari esker.

## Gustura euskaltegian, giro ederrean

Euskaltegian ditugun bizipen eta lanak kontatzen ditugu segidan. Bi errezeta goxo ere, hor dituzue.

HEMEN gabiltza euskaltegian, gustura. Eguerdian astean hiru egunetan etortzen gara. Talde dezentea osatzen dugu eta giro ona dago klasean. Maila ezberdineko ikasleak gaude klasean, baina ondo moldatzen gara elkarrekin. Gehienok nahiko helduak gara, baina gazte sentitzen gara. Gure helburua euskaraz hitz egitea da, eta ez perfila ateratzea. Horretarako, gauza desberdinak egiten ditugu: ariketak, idazlanak, mintza-praktika...

Izaskun da gure irakaslea, eta denetik egiten du guri euskaraz hitz eginarazteko. Adibidez, liburu bat gomendatu digu etxean irakurtzeko eta gero, klasean komentatzeko. Momentu honetan irakurtzen ari garen liburua *Hiru Mariak* da. Etxean bi atal irakurtzen ditugu eta klasean liburuari buruz hitz egiten dugu. Mintza-praktika ere egiten dugu, kafea hartuta: zer egin dugun asteburuan; berriak komentatu, eztabaidatzeko; hizki salda egin, hiztegia praktikatzeko; kotilloak komentatu.

Noizean behin zinemara joaten gara, noski, filma euskaraz denean. Aurten, *Amaren eskuak* ikusi dugu. Antzerkera ere joaten gara, sarrerak lortzen baditugu. Argazki erakusketara... Gure kideetako batek txoko eder bat du, eta han noizean behin bazkari ederrak prestatzen ditugu. Hemen dituzue errezeta batzuk.

### ALKATXOFAK URDAIAZPIKOAREKIN

#### -OSAGAIAK:

- 16 alkatxofa.
- 200 gr. urdaiazpiko
- Irina
- 2 limoi
- Gurina
- Gatza

#### -NOLA EGIN:

Alkatxofei kanpoko hostoak kendu. Ez izan zuhurra: behar

diren guztiak kendu. Gero, egosi limoi-zuku, irin eta gatzarekin. Zortzi bat minutu eduki irakiten.

Urdaiazpikoa gurinetan gorritu pixka bat. Ondoren, nahastu irina eta alkatxofen ura, eta eragin. Bi minutu eduki sutan saltsa loditzen. Bukatzeko, alkatxofa egosiak saltsa horretan berotu.




### TXOKOLATE TURROIA

#### -OSAGAIAK:

- 225 gr. Belga txokolate beltza
- 125 gr. praline krema
- Hurrak

#### -NOLA EGIN:

Txokolatea "Maria bainuan" urtu. Jarraian txokolatea sutatik atera eta praline gehitu, bota moldera eta gehitu hur gehiago. Hozten utzi hozkailutik kanpo. Nahi izatera, kendu hurrak eta jarri barkilloak.



### AZOKA TXIKIA

«Proposamen bat dut denontzat: azoka txikia prestatzea euskaraz bizitzeko»

NIK garajea gogoratzen ez ditudan gauzez beteta daukat eta azokaren idearekin hiru helburu lortuko nituzke: Garajea garbitu, diru pixka bat atera eta, batez ere, nire euskara indartu.

Tratua egingo dugu eta trebeenak preziorik onena lortuko du. Gainera, euskaldun zaharrek gure euskara ere jasoko dute eta pentsatuko dute: «a ze pagotxa lortu dudana».

Lekurik hoberena Atsegindegi izango litzateke. Estalita dago, baina toki zabala da....

Lortutako diruarekin Hernaniko sagardotegietako ibilbidea egingo dugu...

Gutxienez, 12 sagardotegi, Atik



Azoka txikia.

Zarte...zerrendaren arabera:

Alberro sagardotegitik Zelaia sagardotegira. Anima zaitzete, denok ditugu behar ez ditugun gauzak eta baten batek beharko ditu.

Ondo pasako dugu! ||

### '3 MARIK' LIBURUAREN LABURPENA

«Normalean jendeak zahartzaroari buruz hitz egiten duenean berea orokortzen du»

Arantxa Urretabizkaia idazlearen '3 Mariak' liburuaren laburpena duzu, segidan.

KALERA irten, egunero irteten ginen, are alargundu osteko neguan eta udaberri euritsu hartan. Gorrik buru belarri sinesten du onuragarria dela kalera irtetea, onuragarri ibiltzea eta, era berean, jendea ikustea, gure etxean egunero bisitaren bat bage-nuen ere. Hori bai, protesta egiten zuen euria zen bakoitzean. Gero esango dute adinarekin itzali egiten direla grinak, ahuldu.

Normalean, jendeak zahartzaroari buruz hitz egiten duenean, berari gertatzen zaiona orokortzen du edo,

bestela, jaiotza agiriak bizitza osoa gobernatu behar balu bezala jarduten du. Zaharregia zara bizitza berri bati ekiteko, esan zidan semeak eta gorrotoa gorde zalea ez banaiz ere, ez dut oraindik esaldia ahaztu.

Esan dezaket, nire kasuan, gaztetan nituen grina eskasak itzali egin direla eta hori, niretzat, zahartzaroaren abantailetakoa bat da. Gorri, ordea, esango nuke, zenbat eta zaharrago, orduan eta grinatsua dela edo hori esaten dit, behintzat berez gezurtia den memoriak! ||

# «Egunero joaten gara Euskaltegira, pozik, ikastera, aurrez aurre hitz egitera...»

Euskaraz hitz egiteko, komunikatzeko hainbat modu edo aukera bildu ditugu, jarraian.

EGUNERO etortzen gara euskaltegira, pozik, ikastera, aurrez aurre hitz egitera, gure euskara aberastera... Batzuetan, gramatika asko lantzen dugu; beste batzuetan, gai bati buruz hitz egiten dugu arratsalde osoan, edo zerbait idazten dugu, oraintxe egiten ari garen bezalaxe.

Baina euskaltegitik kanpo zer? Lotsa ematen digu euskaraz egiteak. Hala ere, Euskaltegitik kanpo euskara praktikatzeko eta aberasteko aukerak badaude. Hemen daukazue aukera horietako batzuk:

## MINTZANET

Teknologi berriarekin beste modu batean komunikatzen gara, eta horregatik "Maramara" taldeak Donostiako Udalaren, Topagunearen eta beste erakunde batzuen laguntzarekin, enternet bidez euskara praktikatzeko, *mintzanut.net* erreminta jarri zuen martxan orain dela urtebete eskas. Proiektua Donostian jaio bazen ere, munduko edozein euskara-hiztunek erabiltzea da helburua. Bakarrik ordenagailua, eskuko telefonoa eta internet behar duzu, eta gaur egun ia ia denok daukagu. Gero Chromeren azken aplikazioa jaitsi eta euskaraz hitz egingo duzu mundu osoko jendearekin.

Sistema honetan bi mintzakide mota daude: batetik, bidelaria; eta bestetik, bidelaguna. Lehenengoa da euskara praktikatzeko beharra edo gogoia duena. Eta bigarrena bidelariari euskaraz mintzatzen lagundu nahi diona. Biak dira ezinbestekoak proiektu honetan. Gure artean bat

daukagu esperientzia daukana eta oso pozik dago. Bi bidelariarekin ari da; bata Txilekoa da, bestea Manchesterren bizi da. Gainera, alabak ere parte hartzen du eta Manchesterrekoarekin ingelesez praktikatzen du. Orain ere beste plataforma bat atera da euskal kulturaz jendearekin hitz egiteko. Anima eta apunta zaituzte, oso erraza da eta edonon hitz egin ahal duzu eskuko telefonoarekin. Eta gainera, doan da.

## MINTZODROMOA

Asteartean, abenduak 3, euskararen eguna izan zen. Egun hori ospatzeko, Euskal Herri osoan ekintza asko izan ziren programatuak. Hernanin, euskara eguna ospatzeko, astean zehar ekintza asko antolatu dira. Beraien artean, Hernaniko Udal Euskaltegiko irakasle Jokin Nazabalek eta Izaskun Arrietak, mintzodromoa antolatuko dute gaur. Euririk egiten ez badu, kultur etxeko atarian izango da eta euria egiten badu, Atsegindegian. Bi txanda izango dira, goizeko hamarretan lehengoa eta arratsaldeko seietan hasiko da bigarrena. Saio bakoitzak ordubete inguru iraungo du. Toki irekia izango da, euskara praktikatzeko. Kartelen bidez, ia euskara jakin gabe hitz egiteko, lotsarik gabe. Dakitenak eta ez dakitenak elkartuko gara euskara erabiltzeko. Momentu alai pasatuko dugu euskaraz hitz eginez. Lotsatia bazara, inguruan euskaldunik ez baduzu, parte hartu Gure artean euskaraz, *Mintzanut.net* edota *Mintzodromoan*. Ez dago aitzakiarik.

## GURE ARTEAN EUSKARAZ, MINTZALAGUN, BERBALAGUNA...

Donostian mintzalagun, Bilbon berbalagun eta Hernanin Gure artean euskaraz. Dobera Euskara Elkarateak antolatzen du. Oso aukera ona da euskara erabiltzeko.

Borondatea eta denbora pixka bat besterik ez dira behar, dakienak ez dakienari laguntzeko. Modua oso sinplea: binaka edo taldeka elkartu eta euskaraz hitz egin.

Norekin, non, noiz... bakoitzak erabakitzen du. Kafetxo bat hartzen edo paseatzen gabiltzan bitartean, euskaraz hitz egin. Izena emateko edo informazioa eskatzeko euskaltegietara, ikastetxeetara, udaleko euskara sailera edo Doberako bulegoetara jo behar da. Horrela ibili zen iaz Chari Garcia. Ea zer kontaktzen digun!

## TXARI:

«Italiar batekin geratzen nintzen euskaraz hitz egiteko»



### G- Ekimen hau nola ezagutu zenuen?

E- Euskaltegian esan zidaten eta Kronikan artikulua bat irakurri nuen.

### G- Zenbat lagunekin elkartzen zinen?

E- Bakarrik lagun batekin, gainera italiarra zen.

### G- Orduan, zuk lagun hori aukeratu zenuen?

E- Ez, ez zegoen inor, orduan hura eta biok geratzen ginen.

### G- Noiz ibili zinen mintzalagunen?

E- Astean behin, ostegunetan. Plaza Berrin geratzen ginen pote bat hartzeko. Gure bizitzari buruz hitz egiten genuen. Gutxi gorabehera ordu bete pasatzen genuen.

### G- Gustora ibili zinen?

E- Bai, oso gustora. Etxeko lanetaz eta semeaz deskonektatzeko ondo etortzen zitzaidan, eta euskara praktikatzeko. Gainera, mintzalagunak nik baino euskara gehiago zekien eta euskaltegiko etxeko lanekin laguntzen zidan.

## Umorea ez ahazteko...

### DENDAN

Emango al didazu kilo bat esne, mesedez?  
Neska, esnea ez da kiloka neurtzen!  
Orduan, emaidazu metro bat...

### PASAPORTEA ATERATZEN

- Izena esango al didazu, mesedez?  
- Erruperta.  
- Urteak?  
- Hirurogei.  
- Ezkondua?  
- Oraindik ez...

### MILIOIKO ZORRA

- Zer, Hasier? Aurpegi txarra dakarzu...  
- Gauean ez baitut lorik egin, gizona... Milioi bat galtzeko arrisku larrian nago!  
- Zaude lasai eta ez kezkatu horregatik. Alfredok ere milioiko beste zorra zuen eta berak ere ezin zuen lorik egin... Niregana etorri zenean ahazteko esan nion, ez oroitzeko gehiago horretaz.  
Horrela egin zuen eta orain primeran egiten du lo...

- Badakit, bai... Hain zuzen ere, Alfredok zor dit miloi hori...

### PIANOA

- Arratsaldeon! pianoa konpontzera nator.  
- Pianoa? Guk ez dizugu deitu, ordea...  
- Zuek ez. Aldamenekoak...

### PARISTARRA

Aitak semeari: Ibontxo, gaur gauean anaia txikitxo bat ekarri dizute Paristik...  
- Bai? Eta ba al daki Amak?

## HIZKI ZOPA

Hizki zopa honetan Hernaniko zazpi sagardotegiaren izenak topatuko dituzu. Geratutako hitzekin "3 Mariak" liburua topatuko duzu.

BAT -- BATA LTZUETA  
EARN GZELA IAELLK  
DI TUUNIBNTZEONA  
ETA EFZEETZESRAR  
NBAINIORGEHIRAR  
GOAGINN RDUEGAIE  
ALOZIALONNIOBNG  
HIRUMARI AK -- XIXI



# ► EUSKALTEGIEN TXOKOA ◀

## Zinkoenean Santa Maria Magdalena izeneko ospitala zegoen, XVI. mendean

Hernanin, Erdi Arotik hona hainbat ospitale eta egoitza izan dira eta horien berri izango duzue datozen lerroetan.

LEHENGO aztarnak Erdi Arokoak dira. XVI. mendean Hernanin baze- goen ospital bat, Zinkoenean. "Hospital Sta. Maria Magdalena" dei- tzen zen. Ospitalak 2 solairu zeuzkan: Bigarren solairuan gaixoak egoten ziren eta lehenengoan kapera zegoen Dña. Maria Lopez de Galarreta herri- tarrak 1529an, ospitalarentzat utzi zuen bere testamentua.

1866an Jose Antonia Murua jau- nak eraikin berria egitea erabaki zuen Txantxillan. 1984an eraiki zuten oraingo zahar egoitza.

"Karitateko alabek" zaintzen zi- tuzten gaixoak, zaharrak eta ume- zurtzak 1884tik 2003ra bitartean. Handik aurrera Udaletxeak hartu zuen bere ardurapean.


Han era askotako jendea bizi da. Batzuk pertsonaia oso ezagunak: esate baterako, Juanito, atez ate txer- rijana jasotzen ibiltzen zena. Ramon institutu ondoko baserrikoa zen. Eta nola ez, gure Antonio Usarraga herri- tarrek egindako gurgil aulkian ibil- tzen zen.

### Alfonso Mujikaren kasua, adibide

Beste horietako bat dugu Alfonso Mujika. Orain dela 2 urte joan zen hara bizitzera eta orain gurekin dabil Hernaniko euskaltegian.

1943an jaioa da, Donostian. Abokatu baten eta etxeoandre baten semea. Aitak txikitan erabiltzen zuen euska- ra, baina haunditu zenean dena ahaztu zitzaion. Garai hartan Donostian gutxi erabiltzen zuten euskara, ez zen dotorea, bakarrik baserri ingurukoek erabiltzen zuten.

Gure Alfonsok Frantses eskolan



Garai bateko benefizentzia etxea, Hernanin.


egin zituen lehen ikasketak. Batxilergoa, berriz, Jesuitetan egin zuen. Gero, Zuzenbide ikasketako 1go maila Eutegen egin zuen. Euskarakin han izan zuen lehen kon- taktua, aita Altunarekin, baina 3 hila- betez bakarrik.

Ondoren Madriler, Cisneros es- kolara, joan zen karrera bukatzera.

26 urterekin joan zen soldaduska egitera eta itzuli zenean aitarekin eta anaiekin hasi zen lanean. Baina bere benetako bokazioa historia zen, Orduan Geografia eta Historia ikas- ketak egin zituen Zaragozan, baina aurrez aurreko eskoletara joan gabe. Garai hartan hasi zen Euskal Herriko

historia idazten, baina beti erderaz. Izaeraz mugitua da, horregatik hasi zen euskara ikasten. 10 urte pasa zituen euskara ikasten, euskaltegi euskaltegi, eta beste 2 urte Maizpide barnetegian. EGA titulua lortu zuen. Denbora tarte horretan, klase parti- kularrak eta liburuak idatzit zituen, historiari buruzkoak.

Lehenengo liburua 1980an idatzi zuen "Recuerdos de estudiantes", Gero etorri ziren 6 gehiago, denak nobela historikoak. Bere azken libu- rua "Tartesuskoa, El de los tartesos" liburua da. 1990ean argitaratu zuen. Liburu hau euskaraz eta erderaz dago idatzita.



ALFONSO MUJIKA:

### «Bi urte daramatzat Zaharren Egoitzan bizitzen»

#### Noiztik bizi zara Hernanin?

2 urte daramatzat Maria Magdalena zaharren egoitzan. Zuk bakarrik hartu zenuen erabakia hemen egoteko?

Ez dut erabakia bakarrik hartu, adostasuna izan da medikuare- kin, familiarekin eta nirekin, noski.

#### Gogorra izan da etortzea?

Ez, giro ona dago. Jendea oso ona eta profesionala da. Pozik nago hemen.

#### Zer egiten duzu egunero?

#### Nolakoa da zure bizitza?

Goizero Biterira joaten naiz, Kultur etxera. Han ordenagailu bidez bidaltzen dizkiet emailak familiari eta lagunei.

#### Jarraitzen duzu idazten?

Egiten ditut ipuinak konkurtsoe- tarako eta batzuetan konferen- tziatan parte hartzen dut historia- ri buruz.

#### Zergatik etorri zara euskaltegira?

Euskara ez ahazteko. Asko gusta- tzen zait euskara eta ez dut ahaztu nahi. Oso pozik etortzen naiz.



Udal Euskaltegiko egileak